

Ibili ahala, uzten dugu ildo bat,
amaiera alderantz gero eta
sakonagoa dena –hain da astuna
airearen pisua...–. Baina, lasai,
ildoa laster aienatuko da,
eta paisaiak berreskuratuko du
bere birjintasuna...

Badakit mintzo zaidanak
«Nostalgia» izena duela:
tristurak ditu hartitzen
poz guztiak gazitzen.
Bai sukaldari trebea
arimak maneiatzean...

Desagertzeko gogoia dut,
egoteaz aspertu naiz;
beste nonbait izateko irrika
berriro piztu zait..
Ni banoa, jaun-andreok,
haur eta gazte maiteak,
plazer handia izan da
zuekin bat gehiago izatea,
zuekin-bat gehiago izatea...

Zerbaitek bulkatzen gaitu,
ihes zoro, fier honetan;
ez begiratu atzera,
negarrik ez egin:
zer dugu galduko, basamortua baizik...?

Mundua leuntzen duten
gezurren gainean eraikitako
amets bat, Ilusioen Jauregian
herdoilak janda..
Zein amets? Berdin dio.
Edozein...